


UNESCO eta animazio soziokomunitarioa

Erronkaren txostena

Lide Aranzabe, Nadia Boujemaa, Nahikari Payo, Nagore Davila eta Ainhoa
Araluzea – 2018/12/21



Irakaslea: Miren Kontxesi Berrio-Otxoa Otxoa de Angiozar

Gradua: Gizarte langintza

Maila: 4

Aurkibidea

1. Sarrera	2
1.1. Testuinguraketa	2
1.2. UNESCO Euskal Herrian.....	3
1.3. UNESCOren ekarpenak lan arloan, animazio soziokomunitarioaren baitan	4
1.3.1. Garapenerako kultura	5
1.3.2. Hezkuntza eta Bake Kultura.....	6
1.3.3. Jasangarritasuna	7
1.3.4. Orientazio, Komunikazio eta Beken egoitza.....	7
2. UNESCOko erronka aurrera eramateko, animazio sozikomunitarioaz baliatzen den hitzaldiaren deskribapena.....	8
2.2. Animazio soziokomunitarioa	8
2.3. Hitzaldia	8
2.3.1. Ezaugarriak.....	9
2.3.2. Motak	10
2.3.3. Onurak/mugak:.....	10
2.3.4. Rolak/egitekoak.....	12
3. Erronkaren prestaketaren deskribapena	12
3.1. Diseinua.....	12
3.2. Programaketa.....	13
3.3. Difusioa	13
4. Praktika eremuan galdeketa bildutako informazioaren sintesia eta analisisa	13
4.1. Gizarte langintza arloko profesionalek kontatutakoak animazioa soziokomunitarioaz eta bere egitekoaz.....	15
4.2. Profesionalek esanak eta ASK arloko testu teorikoen eraketa, eta bere inguruko gogoetak	16
5. Ondorioak.....	18
6. Bibliografia	19

1. Sarrera

Ondorengo lerroetan, Gizarte eta Komunitate Animazio arloko talde lanari dagokion erronka edo desafioaren azalpena dago jasota. Gure taldearen kasuan, UNESCO hitzaldiaren prestakuntza burutzea egokitu zaigu. Honen helburu nagusia, Animazio Sozio Komunitarioko programa edo proiektu baten egoera posibleak eta bertako teknikarien trebetasun ezberdinak piztea eskatzen duten zeregin sorta garatzea izan da.

Erronka bideratzeko norberak aktibatzen dituen gaitasunak beste batean errazago aktibatzekeo entrenamendua da, lana bera ikaskuntza prozesu bilakatuz. Hau da, taldeko parte den subjektu bakoitzaren gaitasun pertsonalak indartzeko aukera izan da, eta norberak jarri duenaren neurrikoa izan da etekina ere.

Lana lau atal nagusiz bereiz daiteke: lehenik eta behin, sarreran, non batetik UNESCOren testuingurua eta bilakaera adieraziko dugun eta bestetik, Animazio Sozio Komunitarioaren definizioa eta erronkak honi egiten dion ekarpena azaltzen diren. Bigarren zatian, erronkarako erabilitako gaia animazio soziokomunitarioaren ekarpenez baliatzen den bitarteko edo metodologiaren deskribapena adieraziko da. Hirugarren atalean, erronka garatzerako orduan jarraitutako prozesua azalduko dugu eta azkenik, laugarren atalean, erronka burutzea egokitu ez zaigunez, taldekide bakoitzak bere praktika eremuan galdeketa txiki bat egin ondoren, bildutako informazioaren sintesia eta analisisa egitea eta aurkeztera bideratuko gara.

Amaitzeko eta lanari bukaera bat emateko, taldeak ekite honetatik ateratako ondorioak desglosatzeari ekingo diogu, gure iritzi eta hausnarketak adieraziz eta baita sintesi txiki bat eginez.

1.1. Testuinguraketa

1942an, Bigarren Mundu Gerra bor-borrear dagoela, Alemania nazi eta bere aliatuei aurre egin behar dieten Europar hirietako Gobernuak Ingalaterran biltzen dira Ministro Aliatuko Heziketako Konferentzia deritzonean. Gerraren amaiera urrun dagoen arren, hiriak ardura dute behin amaituta dagoenean zelan egingo den aurre hezkuntza sistemaren berreraikitzeari. Proiektu honek dimentsio unibertsal bat izango du eta handi egingo da arin. Gobernu berriek parte hartzeari ekingo diote, Ameriketako Estatu Batuak adibidez.

Ministro Aliatuko Heziketako Konferentzia oinarri hartuta, 1945eko azaroaren 16an, gerra amaitzea, heziketa eta kulturala antolaketaren ezarpenerako Nazio Batuen Konferentzia ospatzen da Londresen.

Honek 40 Estatu ordezkariek biltzen ditu. Frantziako eta Erresuma Batuen laguntzaz, gatazkak oso eragindako bi herri, bake-kultura ezartzera zuzendutako antolaketa sortzea erabakitzen dute. Bere espirituaren barruan, antolaketa berri honek

"humanitatearen solidaritate intelektual eta morala" ezarri behar du eta, honela, mundu-gerra berria sortzea galarazi.

Konferentziaren amaieran, 37 Estatu sinatzen dute Nazio Batuen Erakundearen Heziketarako zuzenduko den erakundea, Zientzia eta Kultura inguruko (UNESCO). UNESCOKO Konstituzioa, 1946tik aurrera sartzen da indarrean 20 Estatu berretsita: Saudi Arabia, Australia, Brasil, Kanada, Txekoslovakia, Txina, Danimarka, Egipto, Ameriketako Estatu Batua, Frantzia, Grezia, India, Libano, Mexiko, Norvegia, Zelandia Nueva, Dominikar Errepublika, Erresuma Batua, Hegoafrika eta Turkia. UNESCOKO Konferentzia Orokorren lehen bilera Parisen ospatzen da 1946ko azaroaren 19tik abenduaren 10eraino. 30 gobernuko ordezkariak hartzen dute parte, botorako eskubidearekin.

UNESCOKO Estatu Kide fundatzaileen konposizioa Bigarren Mundu Gerraren ondoren agertutako zatiketa politikoek markatutakoaren arabera izan zen. Japonia eta Alemaniako Errepublika Federala kide bezala sartzen dira 1951rrean eta Espainia 1953an. Garrantzi handiko historia pasarteak, gerra hotza, deskolonizazio-prozesuaren eta Sobietar Batasuneko disoluzioa modukoak eraginak izan zituzten UNESCOn. Sobietar Batasuna, 1954ean gehitzen da kide modura, Errusiako Federazioak 1992an ordezkatu baino lehen. Afrikako hemeretzi Estatu bertakotzen dira antolaketara 1960an. Hamabi errepublika sobietar zahar 1991 eta 1993 bitartean UNESCOko Estatu Kideak izatera igarotzen dira, Sobietar Batasunaren desintegrazioaren ondoren.

Txinako Herri Errepublika Txinako ordezkari legitimo bakarra da UNESCOn, 1971tik. Alemaniako Errepublika Demokratikoa, 1972tik da kidea eta 1990ean Alemaniako Errepublika Federal bihurtuz batzen da. Herri batzuk UNESCOtik erretiratu ziren arrazoi politikoengatik historiako hainbat unetan, baina, gaur egun, guztiak itzuli dira.

1.2. UNESCO Euskal Herrian

Euskal Herrian UNESCOk Etxea du atxikiturik bere baitan. Euskal Herriko UNESCO Zentroa irabazi-asmorik gabeko erakundea da, 1991ean sortua eta UNESCO (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) erakundearen printzipioak, programak eta jarduera-ildoak euskal esparruan zabaltzeko asmoa duena. 2006an Onura Publikokoa deklaratu, egun, elkarteak 132 bazkide ditu, eta horiek osatzen dute erakundearen gizarte-oinarria.

Bat egiten du UNESCOren sorrerako helburuarekin: hau da, bake justu eta duina eraikitzea, pertsona, haren duintasuna eta balioa abiapuntutzat hartuta; horretarako, hain zuzen, nazioarteko bokazioa duen elkartasuneko euskal elkarteak sortu zuten, UNESCOren sozietate zibil gisa, eta tokiko eta nazioarteko ekimen eta sareetan aktiboki hartzen dute parte, euskal gizartearen eta nazioarteko komunitatearen arteko elkarrekin eraldatzailea sustatzen dute, batez ere UNESCOrekin eta NBerekin eta

iritzi eta irizpide propioak ematen dituzte, ikerketaren, eraginaren, prestakuntzaren, berrikuntzaren eta dibulgazioaren bitartez.

Bakearen Kulturaren eta eskubideak eta erantzukizunak dituen Giza Garapen Iraunkorraren alde egiten dute lan. Pertsonak, gizarte-erakundeak, hizkuntza- eta kultura-komunitateak eta herriak kontuan hartuko dituen mundu baten alde lan egiten dute, denon artean hiritartasun demokratiko globala eraikitzeko. Pertsona-talde sortzaile, parte-hartzaile, parekide eta aktiboz osatua dago, Eginkizunarekin eta Balioekin identifikatzen dena.

Zehazki, balio hauekin identifikatzen dituzte: zintzotasuna, partaidetza atsertiboa, talde profesionalaren, Zuzendaritza Kontseiluaren, bazkideen eta kolaboratzaileen aldetik, zuzentasuna, eskubide eta betebeharrak dagokienez, gardentasuna eta gidaritza egokia, profesionaltasuna, sarean lan egitea, independentzia, erakunde publiko eta pribatuekin elkarlanean arituz, baina, betiere, independentziari eutsiz, eta beti gure ideien printzipio eta balioen arabera jokatzuz eta azkenik, Pluraltasuna, elkartearen barruan zein gure proiektu publikoan, gure organo eta lanetan gizarte honen konplexutasuna eta osatzen dugun dibertsitate globala kontuan hartuz.

1.3. UNESCOren ekarpenak lan arloan, animazio soziokomunitarioaren baitan

UNESCOk Bakearen Kulturaren eta eskubideak eta erantzukizunak dituen Giza Garapen Iraunkorraren alde egiten du lan. Pertsonak, gizarte-erakundeak, hizkuntza- eta kultura-komunitateak eta herriak kontuan hartuko dituen mundu baten alde lan egiten du, denon artean hiritartasun demokratiko globala eraikitzeko. Pertsona-talde sortzaile, parte-hartzaile, parekide eta aktiboa osatzen du, betiere eginkizunarekin eta balioekin identifikatzen dena.

UNESCOk mundu mailan lantzen dituen bost arlo nagusiak Hezkuntza, Natur Zientziak, Gizarte Zientziak, Kultura, Komunikazioa eta Informazioa dira, komunitate internazionalak helburu jakin batzuk zehazten dituelarik hauen programaketan. Aitzitik, gure lana Euskal Autonomia Erkidegora mugatzen denez, UNESCOk bertan jorratzen dituen lan arlo nagusiak izendatu eta azalduko ditugu jarraian.

Testuinguruan azaldu dugun bezala, UNESCO mundu mailan egiten du lan eta edozein lurraldeetan eramaten ditu proiektuak edo ekintzak. Batzuetan animazio soziokomunitarioarekin lotutako ekintzak burutzen dira, herrialde bateko komunitate sentimendua sustatzeko edota herrien arteko elkartasuna batzeko. BEAeko eremu geografikoan UNESCOk bi egoitza ditu, bat Bilbon (Unibertsitate pasealekuan) eta bestea Gasteizen (Zapatari kalean). Espazio fisiko hauek bere eginkizuna aurrera eramaten laguntzen diete, beraz, aurretik aipatutako helburuak betetzeko tresnak dira. Hauek ez daukate bata bestearekiko funtzionamendu independentea, aitzitik, helburu eta zeregin berberak elkarbanatzen dituzte. Gure erronka, UNESCOk Euskadi mailak egiten

dituzten ekarpenetan oinarrituko da, alegia, Unesco Etxeak egiten dituzten ekintzetan animazio sozio komunitarioa oinarritzat harturik.

1.3.1. Garapenerako kultura

UNESCO Etxeak kulturaren ikuspegia jaso nahi du bai nazioartean, bai eskualde mailan edo maila lokalean, gehien bat kultura eta hizkuntzen aniztasunean tematzen delarik. Lan-ildo berezi bat sortu du horretarako, garapenerako kultura” izenburupean. Kulturaren teorikoki sakontzea eta hura sustatzea dira lan-ildo horren helburua, hau giza garapenerako ezinbestekoa dela ulerturik.

UNESCOren web orriko informazioari jarraiki, ondorengo puntuak zerrendatzen ditu helburua gisa.

- Giza garapen integralerako dinamika, iritzi eta gogoetetan kulturaren ikuspegia jaso dadin bultzatzea.
- Kultura-askatasuna, kultura-aniztasuna eta kultura-eskubideak itemen inguruan nazioartean, Nazio Batuetan eta UNESCOren baitan, gaur egun ematen diren eztabaidak sakon ezagutzea eta euskal esparruan zabaltzea, eta, batez ere, zer aplikazio praktiko izan ditzaketen aztertzea.
- Garapenean kulturaren ikuspegia sustatzeko euskal ekimenak nazioartekotzen eta zabaltzen laguntzea.

Garapenerako kulturaren baitan, berriz, gai ezberdinak barnebiltzen dira ondorengo lauak azpimarratuz. Kultura eta giza garapena, kultura eskubideak, ondarea eta hizkuntzak eta aniztasun kulturala. Kultura-ondarea lehentasunezko sektore bat da UNESCOn, hasiera-hasieratik. Munduko ondare naturala eta Kulturala EAEn zehazten du UNESCO etxeak, ondorengoak zehaztu dituelarik, besteak beste: Bizkaia Zubia, Kantauri itsasertzeko Labar-arte paleolitikoa), Urdaibai Biosfera Erreserba etab.

Bestetik, kultura arloan bi proiektu nagusi burutzen ditu UNESCO Etxeak animazio sozio komunitarioa oinarri bezala harturik.

Alde batetik, *Aniztasunaren Leihoa* proiektua dugu, urtero burutzen da proiektu hau 2014tik Donostiako hiriburuan. Aniztasun leihoa arte proiektu bat da, lankidetzara sustatzen duena. Helburu nagusia da beste herrialdeko gazteekin batera film sareak laburrak egiten ikastea, kultura ezberdinetako nahastura baten bidez gazteak elkartzeko eta harremanak garatzeko proiektu batean. Proiektu honetan parte hartuko duten gazteak, 18-30 urte bitarteko gazteak izango dira ikus-entzunezko mundua interesatzen zaienei.

Beste aldetik, *I. Nazioarteko Vedi. Bio topaketa* 18-23 urte bitarteko gazteei begira dagoena. Gazte horiek Latinoamerikako artearen, diseinuaren eta teknologia berrien sektoreetako profesional berriekin elkartzeko aukera izan dute. Topaketa honetan parte

hartutako gazteek elkarrekin, gure kostak ingurumen-mehatxuetatik babesteko ideiarekin ingurune pribilegiatu batean egingo duten lan: Euskal Kostako Geoparkea.

Gazte horiek 7 egunetan Askizuko Udal Aterpetxean elkartuko ziren diseinuko eta arte digitaleko teknika berritzaileak erabiliz, 3 ekimen lankidetzan sortzeko, kulturen eta sormenean oinarrituta. Diagnostikatutako ingurumen arazo hauei eskainiko dizkiete konponbide-proposamenak:

- Biodegradagarriak ez diren hondakinak, batez ere plastikoa, eta nola eragiten dioten komunitateetako eta ozeanoetako osasungarritasunari.
- Ekosistemak galtzea, bereziki biodibertsitateerako habitat naturalak.
- Ingurumena errespetatzen duten jatorrizko praktika eta ezagutzak alde batera uztea (tradizionalak eta modernoak).

1.3.2. Hezkuntza eta Bake Kultura

Bake Kulturarako hezkuntza mundu mailan gailentzen doan estrategia hezitzailea da. UNESCOk arlo honetan bake-kulturarekin eta giza eskubideekin zerikusia duten lanak argitaratzen ditu eta haiek guztiak Euskadiko ikastetxeetara eramaten dira prestakuntza-ikastaroen bidez. Bestalde, euskal gizartea gainontzeko gizarteekin elkar harremanetan jartzea bilatzen du generoari, gazteriarri eta beste zenbait gairi lotuta dauden bake-kulturaren arloko esperientzia berritzaileak hurbilaraziz Euskadiko esparrura.

Hizkuntza gutxiak babestearen eta sustatzearen aldeko lana egiten du liburu espezializatuak argitaratuz, hizkuntzaren garrantziari eta hizkuntzak kultura-aniztasunarekin duen loturari buruzko espazioak antolatuz, eta argitalpenak eta albistek euskaratuz, UNESCO Etxeetan.

Hezkuntzaren arloan, bestalde, UNESCOrekin elkartutako eskolen nazioarteko sarea sortzen da, 1953an sortutako hezkuntza programa bat eta UNESCO Etxeak UNESCOren hezkuntza-programa hori dinamizatzen du EAEn, sarea estatu osoan koordinatzen duen taldean parte hartzen duelarik.

Beraz, hezkuntza eremuan oinarriturik UNESCOK zenbait ikastetxea edo eskoletan aritzen da elkarlanean, komunitatearen sustapena ahalbidetzen dituen ekintzetan Hauek dira Euskadi mailan UNESCOrekin asoziatuak dauden adibideak:

- Kantabria eta Euskadiko UNESCOren eskola elkartuen 55 ikasle eta 15 irakasle, parte hartu dute munduko ondare den labar arteri buruzko topaketan Kantauri itsasertzeko Unescoren eskola elkartuei zuzenduta. Topaketa hau UNESCOren gai Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaularitzak babestu eta lagundu dute.
- Unescoren eskola elkartuen ikasleak parte hartzen du Euskadiko meatzeari buruzko topaketan. Ikasleak meatzaritzarekin lotutako gaiak gain, UNESCO Etxeak proposatutako gai desberdinak landu zituen: besteak beste, Meatzarien

bizimodua, Emakumeek meatzaritzan izan duten eginkizuna eta Meatzaritzari lotutako immigrazioa eta demografia-garapena. Honetarako, Euskal Herriko meatzaritzaren Museoak egindako kit didaktiko bat eman zitzaien. Hau guztiarekin ikasleek aukeratutako gaiari buruzko ikus entzunezko lan bat prestatu zuten.

1.3.3. Jasangarritasuna

Oinarri hauen bidez sortzen da Jasangarritasunaren arloa, zeinak hiru arlo handi bereizi dituen hauetan espezializatu eta indartzeko asmoz. Biodibertsitatea eta ingurumen hezkuntza, Aldaketa Klimatikoa eta ura.

Unesco Etxeak ekintzak burutzen dituzte eskola ezberdinekin, garapen iraunkorra sustatzeko zeintzuk diren Nazio Batuen Erakundearen helburu nagusiak azalduz. 2015.urtean Garapen Iraunkorrari buruzko Mundu Gailurrean, NBEko Estatu Kideek Garapen Iraunkorrerako **2030 Agenda** onartu zuten, agenda hau pertsonen, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza-plana da eta hau praktikan zertan oinarritzen den ikusiko dugu, adibide batzuk:

- *GIH-EN BERRI EMATEN URAREN JAIA*. 2016 urtean, Ingurumenaren Eguna zela eta, Uraren Jaiaren 24. edizioa ospatu zuten Beteluri-Arrigorriagako Edateko Uren Tratamendutegian. Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoak antolatzen duen jai horren helburua da herritarrak, ura neurrian erabiltzearen eta haren kutsadura eragoztearen beharraz sentsibilizatzea.
- Urdaibaiko (Bermeo eta Gernika) hainbat ikastetxetako ikasleek tailer batzuetan hartu dute parte egunotan, UNESCO Etxearen eskutik eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren laguntzarekin. Gazteok egindako lana UNESCOren Biosfera Erreserbaren Europako Biltzarrean aurkeztu da.

1.3.4. Orientazio, Komunikazio eta Beken egoitza

Orientazio, Komunikazio eta Beken egoitzak helburu nagusizat printzipioen zabaltzea, ekintza arloak, Nazio Batuen Sistemako programa eta dokumentuak eta parte hartze sozialaren bultzatzea ditu. Parte-hartzea informazioaren elkarbanatzean, formazioan, orientazioan eta gaien inguruko sentsibilizazioan materializatzen delarik. Honetarako ondorengo zerbitzuak eskaintzen ditu: 1) informazioa eta dokumentazioa 2) orientazioa 3) komunikazioa.

2. UNESCOko erronka aurrera eramateko, animazio soziokomunitarioaz baliatzen den hitzaldiaren deskribapena

2.2. Animazio soziokomunitarioa

Animazio Soziokomunitario kontzeptua, Animazio Soziokultural bezala ere erabiltzen da gaur egun. Horregatik, zer den ulertzeko, kultura zein komunitate kontzeptuak definitzen hasi beharra dago.

UNESCOk kulturaren inguruko definizioa bereganatu du (Conferencia Mundial sobre las Políticas Culturales; Mexico, 1982):

“...gaur egun kultura ezaugarri multzo (espiritualak, materialak, intelektualak eta afektiboak) bezala kontsideratzen den gizarte edo talde sozial baten bereizgarria da. Artea eta hizkuntza barnebiltzeaz gain, bizimoduak, gizakiaren oinarritzko eskubideak, baloreak, tradizioak, sinesmenak eta kulturak ematen duen hausnartzeko gaitasuna ere hartzen ditu bere gain. Honek egiten gaitu gizaki arrazional, kritiko eta etikoki konprometitu; berarengandik balioak barneratu eta aukeraketak egiten ditugu. Gainera, honen bitartez pertsonaren adierazpena ematen da, bere buruarekiko kontzientzi hartzen du, proiektu bukatu gabe bezala aitortzen da, bere errealizazioak zalantzan jartzen ditu, esanahi berriak bilatzen ditu etengabe, eta ezagutzera eramaten dituen lanak eratzen ditu.”

Komunitateari dagokionean, interes eta ezaugarri komunak dituen giza taldea dela esan daiteke; leku jakin bateko biztanleen multzoa. Hau da, helburu eta arau konkretu batzuen mendeen elkarrekin bizi diren pertsona taldea.

Horrenbestez, UNESCOko kideak, informazioaren teknologia eta komunikazioa erabiltzen dute ezagutzak partekatu eta erakundeak dituen ekintzen gaien inguruan eztabaidatzeko.

Beraz, animazio soziokomunitarioa estrategia bat dela esan daiteke, esku hartze modelo bat non jendea kulturen era aktibo batean parte hartzera bultzatzen den. Era honetan, jendea kulturako protagonista bihurtzen da eta antolatze gaitasuna bereganatzeaz gain, bizi kalitatea hobetzen dute. (Simpson, 1970-1976).

2.3. Hitzaldia

Gai edo ideia bat argitzeko modu asko daude gaur egun, horien artean ezagunetarikoa eta erabilienetarikoa hitzaldia dugu, hau da, gai baten inguruan pertsona batek edo bat baina gehiagok azalpen sakon bat ematea. Bi pertsona edo kolektibo daude hizlari bat burutzean, alde batetik, hizlaria(k) azalpena emango duena, eta bestetik entzuleak edo publikoa.

Normalean gela handi batean burutzen da, soinu egokia duena eta eszenario edo erdigunean kokatzen da hizlaria.

Honela definitzen du Castro Lerma, I. (2017):

“La exposición oral académica es la presentación clara y estructurada de ideas acerca de un tema determinado con la finalidad de informar y/o convencer a un público en específico. A este tipo de exposición con fines académicos, también suele denominársele: discurso y recurre de manera constante a la argumentación, la descripción y la narración. “

2.3.1. Ezaugarriak

Interpretazio ezberdinen arabera, 'Hitzaldi on bat' erabilgarria eta aldi berean interesgarria den hitzaldi bat da: datu eta hiztegi berria ikasteko aukera ematen dizuna eta bere egitura bereziari esker interpretazioa lantzea ahalbidetzen duena. Horregatik, erronka bezala ere hartu daiteke hitzaldi bat burutzea. Hortaz, zenbait ezaugarri kontuan izan behar dira hitzaldi on bat garatzeko:

- Aukeratutako gaia ahalik eta gustukoa izatea, errazago azaldu ahal izateko. Betiere, kontuan izanik zure zaletasunaren xehetasun arrotzak azaltzen badituzu, ziurrenik hitzaldia oso zaila izango da. Beraz, besteekiko interesa galtzeko arriskua dago.
- Gaiari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, hitzaldiaren aurretik ikerketa sakon bat egin behar da. Bilatu egunkarietako artikulak bilatu, ikusi dokumentalak ikusi bat, miatu informazio orokorra ospe oneko webgunetan informazio orokorra miatu edo liburu baten irakurketaren bitartez informazioa edo ezagutza eskuratzeko. Iturri-materialak erabilgarriak izango dira hitzaldia igotzerakoan.
- Hitzaldiak egitura bat izan behar du. Horretarako, kronologia bat sortu, ideia desberdinen zerrenda bat osatu, eskema edota mapa kontzeptuala bat osatu.
- Hitzaldiak sarrera labur bat izan behar du testuingurua aurkezten eta azaltzen duena, eta zergatik erabaki da gai hori jorratzea. Bestetik, hitzaldia amaitzea ondorio sendo batekin edota ireki bidea hausnarketarako.
- Hitzaldia ez da irakurtzea. erabili apunteak bakarrik oinarri gisa erabili, hitzaldia modu naturalean emateko. Begi-kontaktua izan behar da entzuleekin, eta agian motelago hitz egin hitzaldia notaketa bidezko esan ostekorako baldin bada.
- Beraz, egin hitzaldiak biziak, berriemaileak eta interesgarriak. Iritzia eman libreki eta hizlariak kontatu bizitzako gertaerak edo esperientziak. Hala, irakurritako informazio orokorra hobeto barneratuko da, asko ikasten da eta hobeto pasako du hitzaldia ematen duena, eta zure

ikaskideak zure hitzaldiak interpretatzeko amorratzen egongo dira.

Bestalde garrantzitsua da hitzaldia burutuko den lekuari ere garrantzia ematea, honela aipatzen du París, C. (2014):

“Es fundamental tener en cuenta el lugar en el que va a desarrollarse la exposición. Debemos saber si la sala tiene buena acústica, si podemos ponernos de pie, si podemos utilizar recursos técnicos y otros aspectos que consideremos importantes para lograr el éxito. Fundamental es la posición que ocupa el orador con respecto al auditorio. La exposición puede realizarse de pie o sentado. Tengamos presente que al estar erguidos seremos el punto de todas las miradas. Todo nuestro cuerpo va a ser objeto de estudio. Esto es lo que nos ocurre diariamente al entrar en la clase, nos sentimos explorados por los ojos de los alumnos. Por ello es muy importante cuidar los detalles. No obstante, si el orador controla la situación es muy positivo permanecer de pie ya que permite la aproximación al receptor, la gesticulación e imitación,... Otro factor positivo es que al estar de pie la potencia vocal es mucho mayor, es decir, se favorece la transmisión de los sonidos”

2.3.2. Motak

Hitzaldien moten inguruan ez dago desberdintasun handirik formatu aldetik, aldatu daitekeena edo zerbait desberdindu badaiteke hitzaldiaren asmoa litzateke, hau da, zein helbururekin burutzen dugun hitzaldia. Zentzu honetan, hitzaldiaren hizlariak edo antolatu duen pertsonak hiru helburu desberdinekin antolatu dezakeela esan dezakegu. Hiru asmo horiek informatzea, konbentzitzea eta ekintzarako motibatzea lirateke (ITESM. s.f.).

2.3.3. Onurak/mugak:

Ahozko hitzaldien onurak eta mugak aztertzeko AMIA taula aurkeztuko da jarraian. UNESCO eta ASKen loturaren inguruko hitzaldiaren azterketa egingo da metodologia honen aukera, mehatxu (barne faktoreak), indar eta ahuleziak identifikatu eta aurre balorazio orokor bat egiteko egoera errealetik abiatuta.

1. Taula: Amia.

<u>Aukerak</u>	<u>Mehatxuak</u>
Hitzaldia aurrera eramateko espazio fisikoa dago.	Hizlariaren disposizio eza-
Hitzaldian landu beharreko gaia espezifikatuta dago.	Hitzaldia aurrera eramateko denbora falta

Gaiari buruzko informazioaren aurre lanketa	
<u>Indarrak</u>	<u>Ahuleziak</u>
Parte-hartzaile guztien artean jakintza kolektibizatu ahal izatea.	Entzuleen partetik parte-hartze eza.
Jakintza horren inguruko hausnarketa kolektiborako aukera.	Hitzaldiaren izaera monotonoa.
Gaiean aditua den profesional batekin elkarbanatzeko aukera.	Gaiaren haria galtzeko aukera edo landu nahi den arloa dagokion bezala ez uztartzea.
Informazioa hobeto barneratzea elkarrekintzaren bidez.	Hitzaldiaren helburuak ez lortzea (informatu, konbentzitu, ekintzara bultzatu).

Hasteko, hitzaldia antolatzeke barne faktoreen barnean aukera zein mehatxuak agertzen zaizkigu. Esparru akademikotik aurrera eramaten den dinamika denez, unibertsitateko gela bat baliatu dezakegu hitzaldia bertan gauzatzeko. Hitzaldi bat emateko espazio fisiko bat ezinbestekoa denez, Paris C.-ren zitan aipatzen den bezala (ikusitako ezaugarrien atalean), zentzu honetan abantaila bat litzake aipatutako aukera. Bestalde, landu nahi dugun gaia espezifikoa eta argia denez, hizlariari proposamena aurkezteko garaian lana erraztuko genioke. Gehitu behar zaio, aurkeztu nahi den gaiaren inguruko prestakuntza informatibo eta teoriko bat egon dela aurretik. Gainera ordubete edo bi orduen arteko denboran (klaseak irauten duena) aurkezteko ahalmena ematen dio, gaia abstraktua eta irekia den kasuetan hau kronologizatzea eta laburtzea zailagoa delarik. Aitzitik mehatxuak ere agertzen zaizkigu, nabarmenena hizlariaren disposizio eza delarik, edo hizlaria aurkitzeko gaitasun edo aukera eza. Bestalde, egutegi akademikoan tarte bat hartzea eskaintzen du hitzaldia klase orduetan gauzatzeko eta posiblea da denborarik ez izatea gure ideia materializatzeko.

Gure eskuetatik ihes egiten duten bestelako indargune eta ahuleziak ere identifika ditzakegu, ahozko aurkezpenean ager daitezkeen egoera positibo zein negatiboak. Indarguneei dagokionez, ezaugarriak atalean aipatzen diren hitzaldi on baterako zenbait puntu kontenplatu dira, adibidez, hobeto ikasteko aukera eta informazioa errazago barneratzeko. Esperientzia eta gertaeretatik aritzen den profesional batekin ikastea abantaila handia da, zalantzak argitu edo jakintza profesionala eskuratzeko. Bestalde, parte-hartze aktiboa bultzatzen da ikaslearen artean, galderen edo eztabaiden bitartez hitzaldiaren ostean hausnartutako elkarbanatzeko. Parte-hartzerako aukera ederra den arren baliteke hala ez gertatzea eta hitzaldia hizlariaren azalpenaren soilik geratzea, kasu honetan, dinamika aberasgarritasuna galtzen duela iruditzen zaigu eta ondorioz, ahulezi gisa ulertzen dugu. Gainera, hitzaldiaren edukiaren inguruan ezusteak gerta daitezke, adibidez, gaia espero eran ez aurkeztea edo moduari dagokionez, monotonoegia izatea, entzuleen kontzentrazioa edo interesa itzaliz. Aipatutako aspektu

ezberdinek hitzaldiaren helburuak ez lortzera eraman gaitzake, esaterako, entzuleak informazioa ez barneratzea, konbentzitzea lortu gabe eta ondorioz entzuleen sentsibilizazio eza gertatzen da, hauen ekintzarako posibilitateak deuseztatuz.

2.3.4. Rolak/egitekoak

Hitzaldi batean eduki beharreko rolei dagokionez hau aipatzen digu Castrok, Castro,I (2017):

“El rol del docente en la exposición. Frecuentemente la exposición se utiliza en actividades dirigidas a la adquisición de conceptos por parte de los alumnos. En estos casos, los alumnos reciben ya organizada la información conceptual a adquirir, a través de la presentación oral que hace un profesor. Para incrementar las probabilidades de éxito en este recurso didáctico, es conveniente asegurarse que la exposición active algunos conocimientos que ya poseen los alumnos, así como cuidar con esmero la organización interna de la misma. Tradicionalmente se ha considerado que un aprendizaje conceptual supone ya de manera inherente el dominio de aspectos procedimentales del conocimiento en cuanto a su uso y aplicación. Sin embargo, es importante tener en cuenta que una cosa es aprender conocimientos conceptuales y otra muy diferente utilizarlos en la práctica cotidiana.

El rol del alumno en la exposición. El manejo de la exposición por parte de los alumnos para presentar información a sus compañeros y al profesor, incide directamente en el desarrollo de su habilidad de comunicación oral y escrita. A través de esta técnica, el alumno desarrolla el pensamiento crítico, a través de un conjunto de procesos cognitivos superiores y complejos como: investigar, analizar, sintetizar, evaluar, resolver problemas, tomar decisiones”.

3. Erronkaren prestaketaren deskribapena

Gure erronka aurrera eraman ahal izateko, aurreko testuinguraketa eta animazio soziokomunitarioaren teoriak kontuan hartu behar ditugu. Beraz, lehenik erronkaren diseinu orokor baten bidez programaketa bat burutuko dugu hitzaldia gauzatzeko.

3.1. Diseinua

Erronka honen zer egin nagusia da, UNESCO Euskal Herriko etxetik hitzaldi bat bideratzea da Gizarte Langintza ikasleak baturik. Hausnarketa baten ondorioz erabaki dugu laugarren mailako euskarako taldetik animazio soziokomunitario ikasgaiaren ikasleak. Izan ere, gure iritziz animazio soziokomunitarioaren eremuan interes berezia duten ikasleak biltzen gara ikasgai honetan. Hitzaldiaren leku egokia eta ordutegiarengatik Gizarte Langintzako gela nagusian bideratzea pentsatu dugu

asteleheneko goizean zehar, horrela ikasle gehienak bertaratzeko aukera izango dute. Erabaki dugu hitzaldi honek bi orduko iraupena izatea, ordu bat eta erdi alderdi teorikoa izango da eta azkeneko ordu erdia dinamika baten bidez saiatuko gara erakusten Unescoren jarduna. Aurrera eraman nahi den dinamika, UNESCO erakunde hizlariak adibide errealean kontakizuna egitea izango litzake non animazio sozio komunitarioaren bidez erantzun duten haiek eta haiek hartutako esku hartzea ebatzi aurretik, taldeka, animazio sozio komunitarioa oinarri edukitako esku-hartze bat sustatzea izango litzake. Honela teoria xurgatzeaz gain parte hartzearen bidez ikasteko hautua egingo da eta ideia berriak sustatuko ditugu.

3.2. Programaketa

Lehenengo egunetan sare sozialetan eta euren web orrian aritu gara informazioa bilatzen eta orokorrean UNESCO zer den ikusi dugu, konturatu gara Estatu mailan aritzen dela lanean eta zehazki Euskal Herrian Gasteiz eta Bilbon kokatzen dela. Hortaz, Gasteizeko UNESCO etxearekin kontaktuan jarri gara emailetik, lehenengo harremana edukitzeko. Ondoren, beraiekin elkartu gara Unesco etxean bertan eta beraiek animazio sozio komunitarioarekin egiten duten lanketa azaldu digute.

Bigarrenik, datu bilketa bat egin ondoren hitzaldia martxan jartzeko lehengo urratsak egin ditugu, taldekideen artean adostu dugu hitzaldiaren egitura nora norakoan izango den ahalik eta dinamikoagoa izateko.

3.3. Difusioa

Gure erronkaren barruan difusioa ez da garrantzitsua izan ere hitzaldi itxia izango da eta ikasleak jakinaren gainera egongo dira. Aurreko egunean gogoraraziko diegu ikasleei hitzaldiaren ordua, lekua eta gaia Whatsapp mezua baten bidez.

4. Praktika eremuan galdeketa bildutako informazioaren sintesia eta analisia

Atal honetan erronka bera gauzatu ez dugunez, taldeko kideek gure praktika gunean buruturiko galderen erantzunak ezarriko ditugu. Praktika gunetan Animazio Sozio Komunitarioa nola lantzen duten eta praktikan egiten dituzten adibideak ezartzeko eskatu genien, horrez gain, beraiek profesional modura zer nolako garrantzia ematen dieten arlo honi ere galdetu genien. Gure taldearen izaera dela eta atal hau betetzeko Donostiako ELKARTU federazioa eta GOYENECHÉ fundazioko GARAGUNE ZENTROA soilik dira baliagarri, izan ere, beste taldekideen elkarte edo zentroetan ez da burutzen animazio sozio komunitarioaren inguruan lanketarik.

Hala ere, esan beharra dago, Gaztelutxo Balio Anitzeko Harrera Zentroan saiakerak egin diren arren, epe motzeko estantziak diren heinean, praktikotasunean fruiturik ez duela izan azpimarratu beharra dagoela. Langile eta erabiltzaile edo onuradun gehienek arteko lotura urriak dira, ez direlako estantzia luzeko prozesuetan sortzen direnak

bezala, eta horrek, komunitatean lan egitea oztopatu egiten du.

ELKARTU federazioa, Gipuzkoako Donostian dagoen elkarte bat da, bertan, ezgaitasun edo arazo fisiko, nahiz mentalak dituzten pertsonen aldeko aldarria egiten dute, beraien helburuen artean Animazio Sozio Komunitarioarekin lotura, hauek dutela esan genezake:

- Urritasun fisikoa duten pertsonen erabateko integrazioa bultzatzea gizarte barneratzaile batean.
- Urritasun fisikoa duten pertsonen partaidetza eta txertatze soziala komunitate baliabideekin eta ez espezifikoeekin egitearen errebindikazioa.
- Urritasun fisikoa duten pertsonen autonomia pertsonala bultzatzea.

Helburu hauek izanik, modu praktikoan nola bideratzen den animazioa ikusiko dugu, oso adibide garbiak dira, izan ere, bi proiektu nagusi horretara bideratuta daude, hauek dira proiektuak:

- Gizarteratze parte-hartze soziala: gaur egungo gizartean ezgaitasuna duten pertsonak parte hartu dezaten, Elkartuk haiekin esku -hartzeak eta ekintzak antolatu eta burutzen dituzte ezgaitasuna duten pertsonak haien autonomiaz jabetzeko. Bizimodu Independentearen programa.
- Elkarbidean: ezgaitasun fisikoa duten pertsonen bizi kalitatea hobetu dadin, haien aisialdi eta denbora librekoa egokitua izan dadin ekintzak egiten dituzte eta haien parte hartzea sustatzeko ere ekintzak antolatzen dituzte. Oporretako zerbitzua eskaintzen dute honen baitan Aste Santu eta udaran, estatu mailan nahiz Europa Mailan ere. Erabiltzaileak ezgaitasun fisikoa dutelarik, aukera ematen zaie haiek nahi duten laguntzailea eraman dezaten, honela oporraldia haientzat egokiagoa izan dadin. Beti ere, aukeratutako estantziako herria eta bai hotela egokituta egon beharko du edozein ezgaitasun fisikorako. Hau burutzeko, txanda bakoitzera bi profesional joaten dira, erabiltzaileak baldintza duinak izan ditzaten.

Horretaz gain, Ezgaitasun fisikoa duten pertsonen, Elkartuk haien egoitzan hainbat formakuntza saio eskaini izan ditu behar zen heinean. Batez ere, informatika eta internetari buruzkoak. Horretarako Elkartuk egoitzan hainbat ordenagailu ezarri zituen.

DONOSTIAKO GOYENEKHE FUNDAZIOA, erakunde ongile, pribatu eta irabazi asmorik gabekoa da. Honen baitan GARAGUNE zentroak daude, bere helburua arreta okupazionalaren bitartez adimen urritasuna duten pertsona helduei zerbitzuak eskaintzea delarik. GARAGUNEak animazio sozio komunitarioarekin harreman zuzena du, izan ere, bere eginkizun edo helburu nagusia adimen urritasuna duten pertsonen komunitatearen baitan kalitatezko bizitza izatea da, komunitatearekin harremanetan ekintza sozialak gauzatuz .Donostia Berio zentroan animazio sozio komunitarioarekin

zerikusia duten ekintzen artean ondorengoak aurkitzen dira:

- Para chuparse los dedos” programaren gauzatzea Gureakeko audiovisuales taldearekin batera.
- Auzoko elkarte eta erakundeekin harremana mantendu.
- Donostia Kulturako bazkide izanik inguruko liburutegien erabilpena.
- Polikiroldegian mantentze gimnasia.
- Abesbatzaren kontzertutan parte hartzea.
- Ate irekien jardunaldiak prestatzea.
- Pertsona bakoitzaren gustuak kontutan izanda komunitatean parte hartzea sustatu.
- AEKrekin kolaborazio lanak.
- Hernaniko TTAPA-TTAPA ekimenean parte-hartze iraunkorra.

“Bizi bat egunean zehar” lemapean GARAGUNE zentroak integrazio sozial eta komunitarioa eta harremanen sustapena bideratzen du egun osoan zehar egiten diren ekintza ezberdinekin, hauetako asko egoitzatik kanpo. Bestalde, egoitzan bertan egiten diren zenbait ekintzek badute harremana komunitatearekin. Adibidez:

- Beste egoitza batzuk dotoretzeko gabonetako apaingarrien eskulanak.
- Auzoan identifikatzen diren beharren inguruko hausnarketa eta eskakizunak udal mailan.
- Abesbatza edo koroaren kontzertuetan parte-hartzeko entseguak.

Ekintza guzti hauek ez dira kasualitatez sortzen eta kohesio zuzena dute planteatzen diren helburu nagusiekin. Ekintza hauen plangintza erabiltzaile bakoitzaren behar, nahimen eta proposamenen analisitik sortzen da, hauek egikaritzea indibiduoarentzako mesedegarria izango dela ziurtatuz. Honela, subjektibitate bakoitza asebetetzeko taldean gauzatuko den plan bat egikaritzen da. Era honetan, erabiltzaile ororen gogamena aseguratu duen ekintza sorta bat eskaintzen da zentroan. Aipatu beharra dago plangintza honek errebisio eta ebaluazio jarraitu bat duela, ekintzek fruituak ematen jarraitzen duten ala ez ziurtatzeko eta edozein aldaketa behar ez gero ahalbidetzeko.

4.1. Gizarte langintza arloko profesionalen kontaktutako animazioa soziokomunitarioaz eta bere egitekoaz.

Praktika zentro desberdinetan animazio soziokomunitarioaren inguruan galdetzerako orduan, profesionalak, ez zeukaten kontzeptuaren inguruko ezagutzarik. Nahiz eta batzuetan praktikara eraman, konkretuki burutzen dituzten ekintzak nola definitu edo non kokatu zehatz mehatz ez zekiten. Hala ere, lan honetan parte hartzen dugun ikasleok kontzeptualizazio eta azalpena eman dugunean, aurretik aipatu ditugun zentroen inguruko ekarpenak jaso eta atal hauek barnebildu ditugu.

Baina, honen inguruan galdetu eta erantzun digutenek aipatu digute oso garrantzitsua dela arlo hau lantzea, askotan pertsonen integrazio edo inklusiorako behar-beharrezkoa baita. Aisia bezalako esparru bat azken finean pertsona guztiei betetzen gaituen esparrua da eta are eta betegarriagoa da arazoren bat pairatzen duen norbaitentzat edo desgaitasuna duen norbaitentzat. “Beraien bizitza guztia besteengandik desberdinduz edo aparteko talde batean ezarririk igarotzen dute eta bat-batean beraien bizilaguna joan den opor leku berdinerara joatea oso aberasgarria egiten zaie” aipatzen digu gizarte langile batek.

Esparru horietan gizarte langilearen egitekoari dagokionez nahiko “sinplea” da, proiektua aurrera eramateko baliabideak martxan jartzea, koordinazioa bideratzea beharrezko elkarte nahiz instituzioekin, erabiltzaileekin komunikazio egokia bermatzea, eta orokorrean gizartean ezagutzera eramatea. Oso garrantzitsua dela aipatzen digute eta askotan garrantzia kentzen zaio, egiten den ekintza oro ebaluatzea, eta hau ere gizarte langilearen lana litzateke, bera arduratuko da parte hartu duten guztiekin modu batean edo bestean elkartu eta iritziak jasotzeaz.

4.2. Profesionalek esanak eta ASK arloko testu teorikoen eraketa, eta bere inguruko gogoetak

Aipatu berri den bezala, profesional desberdinek kontzeptuaren inguruko ezagutza konkreturik ez zeukatela adierazi duten arren. Azalpenak jaso eta ideiak adierazi dituztenean, batez ere, komunitatean ipini dute jomuga. Horregatik, berau definitzea behar beharrezkoa dela deritzogu.

Leku geografiko zehatza hartzen du, ohiko giza harremanak gertatzen dira, interesak, helburuak, beharrak, arazoak eta abar partekatzen dituzte, errealitate historiko, sozial, kultural eta ekonomiko berean murgildurik baitaude. Erakundeak edo elkarteak daude ekintza kolektiboak aurrera ateratzeko, pertsonen tokiko sentimenduak eta identitateak dituzte. Integrazio maila handia ahalbidetzen du, nazioek, erlijioek edo klase sozialek eskaini dezaketena baino handiagoa. (Aranguren, Berasaluze eta Mendia, 2016).

Horrenbestez, animazio sozio komunitarioa, Caride, J.A (2005) eta Úcar, X (1994) idazleek dioten moduan, indibiduo edo kolektibo baten gaitasun eta baliabideak azpimarratu zein bultzatzeko tresnak izatean datza, talde edo kolektibo batek dituen baliabideen bidez, elkarrekintza sustatuz.

Besteak beste, profesionalek adierazitako helburuak bere gain hartzen dituen zerrenda da ondorengoa:

- Gizartearen eraldaketa du helburu nagusizat.
- Indibiduo, talde edo komunitatearen garapena.
- Parte hartzea eta elkarrekintza sustatu.

- Kolektibo baten arazoak saihestu edo konponbidea bilatu.
- Kontzientzia kolektiboa bultzatzea.
- Talde kohesioa bermatu.

Dituen ezaugarrien artean, helburu amankomunak lortzeko pertenezia sentimenduaren sustapena, pertsonen aktibazioa, profesional zein erabiltzaile desberdinen parte hartzea eta behin eta berriro errepikatu den komunitatea erdigunean jartzea daude. Froufe (2009) irakasleak hauek aipatzen ditu animazio sozio komunitarioko ekintza batek eduki beharreko ezaugarri moduan:

“Esbozamos una serie de características que deben poseer las actividades dentro del proyecto de animación comunitaria:

- a) Deben fomentar el trabajo común/cooperativo, produciendo interacciones perfectivas y comunicativas.
- b) Deberán ser significativas y partir de decisiones estudiadas y razonables.
- c) Las actividades propuestas deben ser motivadoras para las personas/grupos que las ejecutan. Deben estimular la participación individual, desde la óptica de la libertad.
- d) No deben formularse actividades que nos desvíen de los objetivos propuestos.
- e) Las actividades deben partir de la misma realidad social, de sus necesidades y posibilidades.
- f) Toda actividad debe incluir para su realización, el manejo de algún recurso que sea atractivo para la persona o el grupo.
- g) Se debe evitar que una misma actividad produzca resultados distintos, según el grupo que la lleve a cabo.
- h) Las actividades estarán abiertas a una revisión continua.
- i) Las actividades pueden ser: individuales, grupales, actividades de barrio, actividades de planificación, etc.
- j) Las actividades pueden ser especificadas en el diseño según la persona/entidad que deba ejecutarlas: grupo, técnico, persona especializada, colectivo, animador, etc.”

Hala ere, gaur egun komunitatea desitsuratu egin dela deritzogu. Izan ere, Arlo pribatua

hedatu den heinean, indibidualizazio eta konpetentzia sentimenduak nagusitu egin dira gaur egungo gizarte kapitalistako indibiduoetan, komunitatearen edo kolektiboaren egitura eta kontzientzia desitxuratuz. Honek, solidaritatean oinarritutako ekintzak edo elkartasun sareak gutxitu egin ditu. Boluntariora areagotu egin den arren, ardura kolektiboa zena pertsonalera mugatu da, norberaren kontzientzia garbitzeko asmotan.

Gainera, gaur egun komunitateko gizarte langintza geroz eta gehiago garatzen ari den arren, oraindik banakako eta familiako esku-hartzean zentratzen da gehien bat profesio hau. Horregatik, entitate desberdinetatik burutzen diren diagnostiko, eta beraz, prozesuak ere, indibiduora mugatzen dira. Izan ere, animazio sozio komunitariorako ekintzak burutzeko, errealitate konkretu bateko behar anitzak definitzea beharrezkoa dela deritzogu, era berean, testuinguru konkretu horretako kideek elkartasun eta elkarlanean erantzun bat bilatzeko asmotan.

Aurretik aipatu diguten bezala, aisialdirako aukera inklusiboa luzatzea garrantzitsua dela deritzogu, horrela, perfil desberdinetako pertsonen amankomuneko espazio batean hartu-emana izan dezaten. Horretarako, beharrezkoa da kolektiboan pertsonen aniztasuna kontuan hartzea, besteak beste: aniztasun funtzionala, hizkuntza zailtasunak, genero desberdintasuna, orientazio sexual desberdinak dutenak etab. Aisia bezalako esparru bat oso garrantzitsua da pertsona hauentzat eta profesional bezala ohartu beharra daukagu hau ere landu beharra dagoela denentzat irisgarria eta eskuragarria izan dadin. Izan ere, ekintza bat burutzeak, sinplea dirudien arren, asko aportatu dezake, Viché-k aipatu bezala (1989):

“mediante la actividad es como un grupo se estructura y se cohesionan, se expresa y se comunica, pone los medios y realiza las tareas que le llevan a alcanzar sus objetivos. Mediante la actividad la persona y el grupo recrean la experiencia, descubren nuevas realidades, toman conciencia de su estructura y tarea y, en definitiva, crecen como personas y como grupo”

Bestalde garrantzitsua iruditzen zaigu eta profesionalak ere aipatu diguten moduan ekintza oro ebaluatzea edo gainbegiratzea, Froufe (2009):

“Todo proyecto de Animación Comunitaria conlleva siempre la ejecución o puesta en práctica de una serie de actividades individuales o grupales, que comprometan la ejecución y la evaluación de dicho proyecto.”

Ebaluazio hori gabe azkenean ez dakigu benetan proiektuak zentzua duen eta helburuak bete diren edo ez, eta beraz, alperrik buruturiko lana litzateke.

5. Ondorioak

Gure erronka aurrera eramateko, datu bilketa orokor bat egin dugu lehenik UNESCOri buruz. Erronka hau egokitu zitzaigunean ez genuen ondo ulertzen nola lotzea animazio

soziokomunitarioarekin. Izan ere UNESCO mundu mailan oso ezaguna den erakundea denez ez genekien nola ekarri gure testuingurura edo gerturatzea. Egia da hasieran zaila iruditu zitzaigun kontaktuan jartzeko erronka hau, baina behin webgunea aztertu ondoren ikusi genuen EAEn ere lan eremua zutela. Hortaz, erronka UNESCO etxearen ekarpenekin lotu dugu.

Behin UNESCO etxearekin kontaktuan jarri ondoren informazio ezberdin eskuragarri eman digute gure hitzaldiaren prestaketa antolatzeke. Antza denez, EUSKADI mailan proiektu ezberdinak garatzen ditu UNESCOk, batez ere ingurumenarekin edo kulturarekin lotura handia duten eremuetan. Hortaz, beharrezkoa da gizartearen errealitatea ezagutzea.

Hitzaldiaren baitan murgildu gara, animazio sozio komunitarioaren dinamika modura. Honetan sakondu ondoren ikusi dugu ekintza oso erabilgarria izan daitekeela komunitatean balore eta hainbat mugimenduren informazioa jasotzeko eta bertan eragin ahal izateko edo eragindunak izateko.

6. Bibliografia

- Caride, José Antonio. (2005). LA ANIMACIÓN SOCIOCULTURAL Y EL DESARROLLO COMUNITARIO COMO EDUCACIÓN SOCIAL. Revista de Educación, 336, 73-88.
- Castro Lerma, I. (2017). *La Exposición como Estrategia de Aprendizaje y Evaluación en el Aula*. 1st ed. Quitó: Razón y Palabra.
- Froufe, S. (2008). *La animación comunitaria como método de intervención en la comunidad*. Universidad de Salamanca: Salamanca.
- Froufe, S. Programación de actividades en la animación comunitaria. Aula [Internet]. 17 Nov 2009 [citado 12 Dic 2018]; 6(0): . Disponible en: <http://revistas.usal.es/index.php/0214-3402/article/view/3338>
- París, C. (2014). *Reflexiones sobre el discurso oral. Hablar en público..* 21st ed. , ISSN 1132-1814, N°. 21, 2014, págs. 75-90: Ribalta: Quaderns d'aplicació didàctica i investigació, pp.págs. 75-90.
- Úcar, Xavier (1994). El estatuto epistemológico de la animación sociocultural. *Teoría de la educación*, 6, 162-166.
- UNESCO. *Organización de las Naciones Unidas para la educación, la ciencia y la cultura*. <https://es.unesco.org/>
- Viché, M.: *Intervención sociocultural*. Valencia, Grup Dissabte, 1989.